

*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Gipuzkoa*

**2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.**

**Akta zenbakia:** 14/2004**Bilera data:** 2004-11-24**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura**Deialdia:** Lehenengoa**Ordua:** 16.30 – 17:10**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia**Acta nº:** 14/2004**Fecha:** 24-11-2004**Tipo de reunión:** Pleno ordinario**Convocatoria:** Primera**Hora:** 16:30 – 17:10**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento**Bertaratutakoak:****Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Reunidos:****Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

Maria Isabel Vaquero Montero  
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea  
 Jose Maria Aldanondo Ugalde  
 Maria Angeles Iriondo Mugica  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Hermenegildo Gonzalez Moran  
 Consuelo Frutos González  
 Jose Guirado Novo  
 Jose Maria Mugica Heras  
 Juan Maria Tomasena Alzuri  
 M. Asuncion Guerra Alonso

**Concejales:**

Maria Isabel Vaquero Montero  
 José Luis Aramendi Goikoetxea  
 Jose Maria Aldanondo Ugalde  
 Maria Ángeles Iriondo Múgica  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Hermenegildo González Morán  
 Consuelo Frutos González  
 José Guirado Novo  
 Jose Maria Mugica Heras  
 Juan Maria Tomasena Alzuri  
 M<sup>a</sup> Asuncion Guerra Alonso

**Ezin etorria adierazi dute:**

M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz

**Ausentes, que se han excusado:**M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua Ruiz**Bitarteko idazkaria:**

Beatriz Garate Cortabarría

**Secretaria interina:**


Beatriz Garate Cortabarría

**Aztergaiak:**

- 1.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.
- 2.- Etxe Babestuaren Araudiaren aldaketaren onarpena.
- 3.- Trafiko Ordenantzaren aldaketaren onarpena.
- 4.- 2004. urterako soldaten igoeraren onarpena.
- 5.- Galde-eskeak.

**Orden del día:**

- 1.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.
- 2.- Aprobación de la modificación del Reglamento de Piso Tutelado.
- 3.- Aprobación de la modificación de la Ordenanza de Tráfico.
- 4.- Aprobación del incremento salarial del 2004.
- 5.- Ruegos y preguntas.



## 2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.

### 1.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.

2004ko urriaren 1etik 2004ko azaroaren 17ra bitarteko Alkatezako dekretuen berri eman zaie udal batzarkideei, deialdiarekin batera banatutakoena.

Era berean, 2004ko abuztuaren 5ean, 2004ko irailaren 2an, 16an eta 20an, 2004ko urriaren 7an eta 21ean eta 2004ko azaroaren 4an Herriko Gobernu Batzarrak egindako bilkuren akten berri eman zaie udalbatzarkideei. Beraz, jakinaren gainean geratu dira.

### 2.- Etxe Babestuaren Araudiaren aldaketaren onarpena.

Alkateak eman dio hasiera gai honi esanez azaroaren 18an egindako Gizarte Ongizate, Osasun eta Emakumearen Informazio Batzordean tratatu zela gai hau.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik eskatu du hitza, eta bere jarreraren zergatia arrazoitu du. Esan du kontrako botoa emango duela, bere ustez zigorren zenbatekoa gehiegizkoa delako; bere iritziz, hori ez da era horretako jendearentzako irtenbidea, baztertutako jendea baita.

Gero, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta esan du ez daudela Etxebizitza Babestuen Araudian diruzigorrak jartzearen alde.

Horren atzetik, PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsok eskatu du hitza, eta aldeko botoa emango duela adierazi du; azaldu duenez, nahiz eta talde honentzat zenbateko altu samarrak izan, bere ustez nola edo hala zigortu

### 1.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 1 de octubre de 2004 hasta el 17 de noviembre de 2004, enviados junto con la convocatoria.

Asimismo, se ha dado cuenta de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local el 5 de agosto de 2004, el 2, 16 y 20 de septiembre de 2004, el 7 y 21 de octubre de 2004 y el 4 de noviembre de 2004. Por tanto, han quedado informados.


### 2.- Aprobación de la modificación del Reglamento de Piso Tutelado.

El alcalde ha presentado este punto diciendo que ya se trató en la Comisión Informativa de Bienestar Social, Salud y Mujer, celebrada el 18 de noviembre.

Ha solicitado la palabra el concejal de IU, Juan M<sup>a</sup> Tomasena Alzuri para argumentar su posición. Ha dicho que su voto va a ser contrario ya que la cuantía de las infracciones es muy elevada a su parecer; considera que no es un sistema de solución para un colectivo como este, que se trata de un colectivo marginado.

Después ha solicitado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo Gonzalez Morán para decir que no son partidarios de que se sancione económicamente las infracciones al Reglamento de Piso Tutelado.

A continuación, la concejal del PP, M<sup>a</sup> Asuncion Guerra Alonso ha pedido la palabra para expresar que su voto va a ser favorable, ya que, si bien las cuantías económicas pueden ser un poco elevadas para este colectivo, considera

*Urnietako Udala**Gipuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

## 2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.

behar dituzte; bestalde, esan du gisa honetako talde bat zigortzen bada, benetan aurretik abisu eta oharpen batzuk egon direlako egiten dela; beraz, bestelako neurri batzuk hartzeko garaia izaten da.

Ondoren, EAJ-EAko zinegotzi M. Isabel Vaquero Monterok hartu du hitza, eta esan du, batzordean esan zuten bezala, araudi honetan zigorren atala aldatu dela, Eusko Jaurlaritzak hala eskatu duelako, ez gobernu taldeak eskatu duelako; gaineratu du araudia onartuta zeukatela beste zigor mota batzuekin, baina Eusko Jaurlaritzak hori aldatzeko abisua eman diela zigorrak dirutan jartzeko eta ez beste edozein zigor. Bestetik, esan du teknikoki ere, gizarte langileek eskatuta, behar zutela nolabait euskarri bat; izan ere, etxe babestuetako jendea gaizki portatzen denean edo jarrera oso larriak dituenenean abisua ematea ez dela nahikoa, eta horregatik, diruzko zigor bat edo bestelakoren bat jarri behar zuten, baina bakarrik dirutan jar dezakete; hala ere, Ezker Batuak eskatuta, zigorrak jaitsi dituzte.

Eztabaidatu ondoren, alkateak gaia bozkatzeko proposatu du; honako emaitza izan du:

Alde: 7 (6 EAJ-EA, 1 PP).  
Kontra: 5 (4 PSE-EE, 1 EB)  
Abstentzioak: 0

Ikusirik 2004ko azaroaren 18an egindako Gizarte Ongizate, Osasun eta Emakumearen Informazio Batzordean hitz egin eta informazioa eman zela.

Gaia bozkatu ondoren, korporazioaren

que de alguna manera hay que sancionarles; también expresa que cuando se llega a sancionar en un colectivo de este tipo es porque verdaderamente ha habido una serie de avisos y advertencias, por lo tanto llega un momento en que hay que tomar otro tipo de medidas.


Seguidamente, ha tomado la palabra la concejala del grupo PNV-EA M<sup>a</sup> Isabel Vaquero Montero para decir que en la Comisión ya comentaron que esta normativa se modificaba en el capítulo de sanciones porque así lo exigía el Gobierno Vasco, y no a instancias del equipo de gobierno; ha continuado diciendo que la normativa estaba aprobada con otro tipo de sanciones, pero que desde el Gobierno Vasco se les advirtió de que había que modificarla y establecer sanciones pecuniarias y no sanciones de otra índole. Por otra parte, ha señalado que técnicamente, a instancias de las trabajadoras sociales, necesitaban de algún soporte, ya que no es suficiente con las advertencias a este colectivo que reside en pisos tutelados cada vez que se porta mal o muestra una actitud muy grave, y que esa es la razón por la que había que establecer sanciones pecuniarias o de otro tipo, pero que sólo podían ser sanciones económicas; no obstante, a petición de Izquierda Unida, han bajado las sanciones.

Tras el debate, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, y el resultado obtenido ha sido el siguiente:

A favor: 7 (6 PNV-EA, 1 PP)  
En contra: 5 (4 PSE-EE, 1 IU)  
Abstenciones: 0

Visto que en la Comisión Informativa de Bienestar Social, Salud y Mujer celebrada el 18 de noviembre de 2004 se trató en informo sobre este punto.

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor



## 2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.

gehiengoa absolutua osatzen duten udalkideen aldeko botoaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo

de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, ha adoptado el siguiente

### AKORDIOA

**Lehenengoa.-** Hasierako onespena ematea Urnietako etxe babestuaren araudiaren aldaketari.

**Bigarrena.-** Hasierako onspena duen dokumentua informazio publikorako argitaratzea 30 lan egunetan GAOn agertuko den iragarki baten bidez, interesatuek aztertu eta udalbatzarrari erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordio hau behin betikotzat joko da.

### ACUERDO

**Primero.** Aprobar inicialmente la modificación de la Normativa de Piso Tutelado de Urnieta.

**Segundo.-** Publicar el documento de la aprobación inicial para información pública durante el plazo de 30 días hábiles, mediante la inserción de un anuncio en el BOG, a fin de que los interesados puedan examinarlo y puedan presentar al Pleno las reclamaciones que estimen oportunas.

En caso de que no se presente reclamación alguna, el acuerdo devendrá definitivo.

### 3.- Trafiko Ordenantzaren aldaketa onartzea.

Alkateak hartu du hitza, eta esan du Ordenantzan aldaketa batzuk izan direla, iaz Legea aldatu zelako; gero, hitza eman dio idazkariari, eta honek esan du Ordenantzaren barne arau-hausteen eta horien zenbatekoaren eranskina aldatu dela, Zirkulazioko Araudi Orokorra onartzen duen Errege Dekretua aldatu baitzuten iaz. Idazkariak esan du beste arau-hauste bat sartu dutela azkeneko mementoan, eta, ondo baderitzote, arau-hauste hori ere eranstea proposatzen dutela: *Motorrezko ibilgailutik bereizitako autoak, autobusak, traktoreak, karabanak edota 3.500 kiloko BGPtik gorako ibilgailuak herri bideetan aparkatzea (baimendutako modu, toki eta aldietan izan ezik).*

Alkateak gaia bozkatzeko proposatu du; honako emaitza izan du:

### 3.- Aprobación de la modificación de la Ordenanza de Tráfico.

Ha tomado la palabra el alcalde para explicar que la Ordenanza ha cambiado debido a que el año pasado se modificó la Ley; a continuación, ha cedido la palabra a la secretaria, quien ha explicado que dentro de la Ordenanza se ha modificado el anexo de las infracciones y sus respectivos importes, dado que el año pasado se modificó el Real Decreto por el que se aprueba la Normativa General de Tráfico. Ha añadido que en último momento han incluido una nueva infracción y que si les parece bien la propuesta es incluir dicha infracción: *Estacionar en las vías públicas remolques separados del vehículo motor, autobuses, tractores carabanas o vehículos de PMA superior a 3500 kilos (excepto en los términos, lugares y periodos autorizados previamente).*

El alcalde ha propuesto someter este punto a votación, y el resultado ha sido el siguiente:

*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Gipuzkoa*

## 2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.

Alde: 12 (6 EAJ-EA, 4 PSE-EE, 1 PP, 1EB).

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

A favor: 12 (6 PNV-EA, 4 PSE-EE, 1 PP, 1 IU).

En contra: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2004ko azaroaren 17an egindako Hirigintza, Obra eta Landa Munduko Informazio Batzordean hitz egin eta informazioa eman zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Mundo rural celebrada el 17 de noviembre de 2004 se trató en informó sobre este punto.

Gaia bozkatu ondoren, korporazioaren gehiengoa absolutua osatzen duten udalkideen aldeko botoaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, ha adoptado el siguiente

### AKORDIOA

**Lehenengoa.-** Hasierako onespina ematea Urnietako Trafiko Ordenantzaren aldaketari.

**Bigarrena.-** Hasierako onespina duen dokumentua informazio publikorako argitaratzea 30 lan egunetan GAOn agertuko den iragarki baten bidez, interesatuek aztertu eta udalbatzarrari erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordio hau behin betikotzat joko da.

#### 4.- 2004. urterako soldaten igoera onartzea.

Alkateak hartu du hitza esateko Eudelek %3,2 igotzeko proposatu duela: %2, eta gero osagarrietan %1,2; igoera hori udaletxeko eta sozietate publikoetako langile guztientzat dela azaldu du. M. Isabel Vaquero Montero alkateordeak hartu du hitza, eta azaldu du ez dutela negoziatzerik lortu; izan ere, negoziazioan baldintza guztiak izatea proposatu dute langileek, eta beraiek Eudeleko eredu

### ACUERDO


**Primero.** Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza de Tráfico de Urnieta.

**Segundo.-** Publicar el documento de la aprobación inicial para información pública durante el plazo de 30 días hábiles, mediante la inserción de un anuncio en el BOG, a fin de que los interesados puedan examinarlo y puedan presentar al Pleno las reclamaciones que estimen oportunas.

En caso de que no se presente reclamación alguna, el acuerdo devendrá definitivo.

#### 4.- Aprobación del incremento salarial del 2004.

Ha tomado la palabra el alcalde para señalar que Eudel ha propuesto una subida del %3,2, es decir, el 2% más el 1,2% en complementos, y que la subida es para todos los trabajadores tanto del ayuntamiento como de las sociedades públicas. A continuación, ha tomado la palabra la teniente-alcalde M<sup>a</sup> Isabel Vaquero Montero, para explicar que no han conseguido negociar, ya que los trabajadores planteaban obtener todas las



## 2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.

instituzionalari jarraitu diote; beraz, soldaten igoeraren aplikazioa soilik onartu dute.

condiciones en la negociación, y que ellos se atuvieron al marco institucional de Eudel, y, por tanto, se quedaron con la aplicación del incremento salarial.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasenak eskatu du hitza, eta esan du berak ulertzen duela negoziazio-esparrua instituzioak direla, eta, gero, horretaz gain, beste itun bat hitzartzeko aukera egongo dela edo ez, baina negoziatzeko esparrua Eudel dela.

Ha pedido la palabra el concejal de IU, Juan M<sup>a</sup> Tomasena Alzuri para expresar que él entiende que el marco de negociación son las instituciones y después, independientemente, si cabe la posibilidad o no de un pacto adicional, pero que el marco natural es el de Eudel.

Alkateak gaia bozkatzeko proposatu du; honako emaitza izan du:

El alcalde ha propuesto someter este punto a votación, y el resultado ha sido el siguiente:

Alde: 12 (6 EAJ-EA, 4 PSE-EE, 1 PP, 1 EB).

A favor: 12 (6 PNV-EA, 4 PSE-EE, 1 PP, 1 IU).

Kontra: 0

En contra: 0

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2004ko azaroaren 16an egindako Pertsonal eta Kontratazioaren Informazio Batzordean hitz egin eta informazioa eman zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Personal y Contratación celebrada el 16 de noviembre de 2004 se trató e informó sobre este punto.

Gaia bozkatu ondoren, korporazioaren gehiengo absolutua osatzen duten udalkideen aldeko botoaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, ha adoptado el siguiente

### AKORDIOA

### ACUERDO

**Lehenengoa.-** 2004. ekitaldirako soldaten %3,2ko igoera onartzea Urnietako Udalaren zerbitzura ari diren funtzionario eta langileei.

**Primero.-** Aprobar el incremento salarial del 3,2% para el ejercicio 2004 a todos los funcionarios y trabajadores al servicio del Ayuntamiento de Urnieta.

**Bigarrena.-** Soldata igoera agintzea hurrengo nominen likidazioan, eta 2004. urtarrilaren batetik aurrerako soldatetan aplikatzea.

**Segundo.-** Ordenar el incremento salarial en la liquidación de la próxima nómina, y aplicarlo a los salarios con efectos desde 1 de enero de 2004.



**2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.**

**5.- Galde-eskeak.**

Alkateak galdetu du inork ezer galdetzeko ba al duen.

PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsok eskatu du hitza, eta esan du duela urtebete 14+1 Comunicacion enpresa kontratatu zutela urtebetez prentsako aholkuak emateko, eta urtea pasatu dela; hori dela eta, galdetu du horrekin zer gertatuko den. Alkateordeak erantzun dio kontratua azaroaren 12an bukatu zaiola, eta ez orain duela kontraturik; esan du prentsaren kontuarekin zer egin pentsatzen ari direla, eta agian lehiaketara aterako dutela.

Horren ostean, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta esan du alkateak bilera bat egin duela Arnasa plataformako ordezkariekin, eta alkateari eskatu dio azal dezala bilera hori nola joan den. Alkateak erantzun dio konpromisoa hartu dutela *Berritu*-n orri bat uzteko, beraien iritziz hondakinen gestioa gutxitzeko, konpostatzeko, birziklatzeko eta abarretarako zer egin behar den azal dezaten; beraz, sei hilabetean aukera eman diete Arnasa plataformari, kontzientziazio kanpaina horretan parte hartzeko, betiere San Markoseko planaren barruan; esan du helburua ez dela ez alde, ez kontra jartzea, baizik eta hondakinak bakoitzak bere etxean nola kudeatu behar dituen azaltzea.

Horren ostean, EBko zinegotziak esan du, berak jakin duenez, lan-itunaren negoziazioa aprobetxatuz langileak berriz antolatzeari buruz aritu direla, eta horri buruz galdetu du. Alkateak erantzun dio nahiz eta LKSren planteamendua aurrera eramateko aukerarik ez izan, nolabait ahal duten heinean, langileekin bat eginik, antolaketari buruzko plan bat eraman nahi dutela aurrera, eta langileei ustez Udalak zein egitura


**5.- Ruegos y preguntas.**

El alcalde ha preguntado si alguien tiene algo que comentar.

Ha pedido la palabra la concejal del PP, M<sup>a</sup> Asuncion Guerra Alonso para decir que hace un año se contrató a la empresa 14+1 Comunicación para realizar el trabajo de asesoría de prensa por un año, que ya ha transcurrido y pregunta qué va a pasar con esto. La teniente-alcalde le ha respondido que el contrato finalizó el 12 de noviembre, y que ahora no están bajo contrato; asimismo, ha señalado que están pensado qué hacer con el tema de la prensa, y que quizá lo sacarán a concurso.

Después el concejal de IU, Juan M<sup>a</sup> Tomasena ha dicho que le consta que ha habido una reunión de Alcaldía con una representación de la Plataforma Arnasa y solicita que el Alcalde explique en qué ha consistido tal reunión. El alcalde le ha respondido que se han comprometido a dejar una página en el *Berritu*, para que expliquen qué es lo que se debe hacer, a su entender, para reducir la gestión de los residuos, compostar, reciclar etc.; por tanto, han dado la opción a la plataforma Arnasa para que durante 6 meses participe en esta campaña de concienciación, siempre dentro del plan de San Marcos; ha señalado que el objetivo no es mostrarse ni a favor, ni en contra, sino que se trata de explicar cómo se deben gestionar los residuos en dentro de casa.

Seguidamente, el concejal de IU ha dicho que ha entendido que, aprovechando la negociación del convenio laboral, se ha tratado el tema de la reorganización del personal; entonces pregunta cómo está este tema. El alcalde le ha respondido que aunque el planteamiento de LKS no lo pueden llevar a cabo, que de alguna manera, en la medida de sus posibilidades y junto con los trabajadores, desean llevar adelante

**2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.**

beharko lukeen aurkeztu dietela.

EBko zinegotziak esan du langileekin hitz egiten ari badira, zinegotziek jakin beharko luketela ildo nagusi horien berri. Alkateordeak erantzun dio Informazio Batzordean aipatu zutela hori, eta esan zutela oraindik ez daukatela ondo zehaztua; orduan ildo nagusi horiek zehazten dituztenean azalduko dituztela Informazio Batzordean, baina idatzizko eduki batekin joan nahi dutela.

Gero, PSE-EEko zinegotzi Jose M. Mugika Herasek LKSren txostenari buruz galdetu du ea LKSak aurkeztu al duen Udala optimizatzeko eta antolatze dokumentu hori; izan ere, 2004ko maiatzaren 14an eskatu zuten azterketa hori, eta maiatzaren 26an erantzun zieten esanez dokumentu hori ez zegoela Alkatetzaren esku oraindik; beraz, galdetu du dokumentu hori baduten edo ez; izan ere, hala baldin badute, kontua ez da ildo nagusien berri izatea, baizik eta dokumentuaren ale bat eskuratzea; gaineratu du hori azaldu zutela aurreko udalbatzarrean eta ale bana banatuko zituztela erantzun zietela. Alkateak erantzun dio ikusiko dutela txosten hori osorik dagoen edo zatirik falta zaion, orduan, osorik dagoela ziurtatzen badiete, zuzenean bidaliko dietela, eta, osterantzean, bigarren parte hori eskatuko dutela. Alkateordeak esan du zehaztaperen gehiago eskatu dituztela txostenari buruz, zeren eta LKS enpresak alderdi politiko guztiei emandako dokumentazioa iritsi da udaletxera.

Azkenean, azterketari buruz dagoena zinegotzietan bidaltzea erabaki dute, eta informazio gehiago iristen bada, hori ere bidaltzea.

un plan de organización, y que lo que les han presentado a los trabajadores es la estructura de cómo debería estar organizado el Ayuntamiento.

El concejal de IU comenta que si se está tratando con la plantilla sería de recibo que los concejales tuvieran conocimiento de esas líneas maestras. La teniente-alcalde le ha respondido que en la comisión informativa se trató ese punto, y que todavía no lo tienen muy concretado; por tanto, ha señalado que cuando concreten esas líneas maestras ya las expondrán en la correspondiente Comisión Informativa, pero que desean presentarlo con unos contenidos escritos.

Después el concejal del PSE-EE Jose M<sup>a</sup> Mugika Heras ha preguntado en relación al estudio de LKS, si ese documento de optimización y organización del Ayuntamiento está entregado por parte de LKS, ya que este estudio fue solicitado el día 14 de mayo de 2004 y el día 26 de mayo se contestó diciendo que no obraba materialmente en poder de Alcaldía, entonces pregunta si el documento obra o no, porque en caso de que obre, se trata, no ya de conocer las líneas maestras, sino de tener materialmente un ejemplar del documento; añade que es una cuestión que se planteó en un Pleno anterior y que se contestó que se iba a entregar un ejemplar. El alcalde le ha respondido que verán si ese informe está completo o le falta alguna parte, y que si les aseguran que está completo, lo remitirán directamente, y que si no es así, solicitarán la segunda parte. La teniente-alcalde ha señalado que han solicitado una mayor concreción del informe, ya que la documentación que ha llegado al ayuntamiento es la que LKS ha distribuido a todos los partidos políticos.

Finalmente, se decide enviar a todos los concejales lo que haya sobre el estudio, sin perjuicio de que si llega más información, se entregue también.





**2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.**

Gero, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta nabarmendu du aurreko udalbatzarrean salatutako kontu bat ekarri nahi duela berriz, hau da, Saletxeberriko etxebizitzetan jendea bizi dela, eta galdetu du horren inguruan ezer egin duten. Alkateak erantzun dio eskaera egin zuen egun berean udaltzainburuari ikertzeko eskatu ziola, eta honek esan zionez, etxebizitza zaintzen duten bi zainzaile bakarrik bizi direla eta ez diotela inori pasatzen uzten. Hori esan eta gero, alkateak Udaltzaingoaren txostena irakurri du. Hermenegildo Gonzalez Moranek erantzun dio Saletxeberri jendea bizi dela; areago, bi telefono alta izan direla etxebizitzaren bloke horretan; beraz, beste txosten bat egiteko eskatu du. PSE-EEko zinegotziari galdetu diote bi alta horien frogarik baduen, eta berak baietz erantzun du, baina ezin dituela erakutsi; nolahi ere, esan du hor jendea bizi dela, eta zerbait egin beharko dutela. Alkateak erantzun dio egiaztatuko dutela.

Gero, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek eskatu du hitza, eta azken udalbatzarrari buruzko bi ohar egin nahi dituela esan du. Informazio batzordeen izaerari buruz eztabaidatzen aritu ziren, eta ematen zuen ez zirela ados jartzen; hori dela eta, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudiaren 123. eta 126. artikulua irakurri ditu, eta esan du honako hau argitu nahi duela: batzordeek ez daukate erabakitze eskumenik, eta gaiak aztertu, informatu edo kontsultatzea da organo horien funtzioa. Horrez gain, esan du araudi horren 137. artikulua arabera, informazio batzorde bakoitzaren akta jaso behar dela, eta berak dakiela ez dutela horrelakorik egitean. M. Isabel Vaquero Monterok erantzun dio ez zutela bakarrik eztabaidatu botazioa egin behar zuten edo ez; bere ustetan, haserre zeuden batzordeetan ez dutelako ezer planteatzen, isilik

Después el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán ha reiterado el tema que denunció en el anterior Pleno, que es el de las viviendas de Saletxeberri donde hay gente viviendo, pregunta si se ha hecho algo al respecto. El Alcalde le ha respondido que el mismo día de la petición solicitó al cabo municipal que hiciera una investigación y que éste informó de que allí sólo viven los dos guardas que custodian el edificio y que no permiten el paso a nadie. Seguidamente, el Alcalde da lectura al informe emitido por la policía municipal. Hermenegildo González Morán responde que sigue manteniendo que en Saletxeberri vive gente y que incluso se han dado dos altas de teléfono en ese bloque de viviendas, por lo tanto, ruega que se realice un nuevo informe. Se le pregunta al concejal del PSE-EE si tiene constancia de esas dos altas, a lo que responde que sí pero que no puede presentar tal constancia, pero que sí que está viviendo gente allí y algo habrá que hacer. El Alcalde responde que se comprobará.

Después el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán ha pedido la palabra para introducir dos notas aclaratorias sobre el último Pleno. Ha comentado que estuvieron discutiendo sobre el carácter de las Comisiones Informativas y que parecía que no llegaban a ningún acuerdo; entonces, ha procedido a dar lectura a los artículos 123 y 126 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, y ha dicho que sólo quiere aclarar que las Comisiones son órganos sin atribuciones resolutorias cuya función es el estudio, informe o consulta de los asuntos. También ha dicho que, de acuerdo con el artículo 137 del ROF, de cada sesión de las Comisiones Informativas se levantará acta, cuestión que no le consta que se haga. Le ha respondido M<sup>a</sup> Isabel Vaquero Montero diciendo que no sólo discutieron sobre si procedía votar o no; a su



## 2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.

egoten direlako, ez dutelako deliberatzen; azken batean, ez dutela eztabaidatzen, eta gero osoko bilkurara etortzen direla eta orduan sorpresak izaten dituztela; esan du batez ere alderdi sozialistak hartutako jarrera izan dela.

PSE-EEko zinegotziak esan du berak bestela ulertu zuela, eta horregatik argitu nahi izan duela; horrez gain, beste kontu bat ere badagoela esan du, hain zuzen, 2004ko Ordenantza Fiskalen behin-behineko onespeneri buruzkoa; esan du, udalbatzarrean adierazi zuten bezala, 2003an horiek onartzeko borondate ona izan zutela, Buruntzaldeak proposatutako igoera izan ezik; izan ere, nahiz eta ulertzen zuten horrela behar zuela, 2003ko urriaren 28ko udalbatzarrean alderdi politiko guztiek erabaki zuten zerbitzu horien defizita berdindu behar zela; esan du M. Isabel Vaquero Monterok ukatu egin zuela hori aurreko udalbatzarrean, Jarraitu du esanez udalbatzarrak hartutako konpromisoa izan zela hura, eta ez dutela bete, eta, hori egiaztatzeko, aktaren lehenengo puntua irakurri du. Amaitu du esanez kontu hori argitu nahi zuela; izan ere, aurreko udalbatzarrean zalantzan jarri zuten PSE-EEK hori esan izana eta hori onartu izana. Alkateordeak erantzun dio berak ez zuela esan besteak hori esan ez zuenik, bakarrik esan zuela zerbitzu elkartuak zituztela eta beren zerbitzuak ez zirela aski; gaineratu du ez zuela ezer esan aurreko hobetzeko egin dituzten inbertsioei buruz, hori ez zuela aipatu, baina hobekuntza horiek egin dituztela, eta ahal duten heinean instalazioak hobetzen ari direla.

Ondoren, Mikel Elozegi urnietarrak eskatu du hitza galdetzeko zein irizpide politiko izan dituzten aurtengo Ordenantza fiskalak onartzeko. Alkateak erantzun dio orokorrean KPIaren igoera aplikatu dutela, hau da %3,3, bi zergatan ez ezik: bata, Buruntzaldean onarturiko %6 eta zerbait, eta bestea, hondakinei dagokienez %10ekoa izan dela igoera. Orduan,

entender, el enfado se originó porque en las comisiones no se plantea nada, predomina el silencio, no se delibera, no se debate, y luego cuando vienen al pleno se llevan grandes sorpresas; ha señalado que esa ha sido sobre todo la actitud del partido socialista.

El concejal del PSE-EE ha dicho que él lo entendió de otra forma y que por eso lo ha querido aclarar; sigue diciendo que había otra cuestión sobre la aprobación provisional de las Ordenanzas fiscales del 2004; que comentaron en el Pleno que en el año 2003 tuvieron la buena voluntad de aprobarlas con la salvedad de la subida planteada por Buruntzaldea, que aunque entendían que tenía que ser así, sí que se acordó en el Pleno del 28 de octubre de 2003, por parte de todos los grupos políticos, que tenían que satisfacer el déficit de esos servicios; dice que por parte de M<sup>a</sup> Isabel Vaquero Montero se negó esa cuestión en el Pleno anterior. Sigue diciendo que fue un compromiso que el Pleno adquirió y que no se ha cumplido, y para demostrarlo ha procedido a dar lectura al punto primero de ese acta. Termina diciendo que quería aclarar este punto, ya que en el Pleno anterior se puso en cuestión que el PSE-EE dijera eso y que eso se aprobara. La teniente-alcalde le ha respondido que ella no dijo que él no hubiera dicho eso, sino que simplemente señaló que los servicios eran mancomunados y que no eran autosuficientes, y que en ese sentido no mencionó las inversiones de mejora, pero que esas mejoras las han realizado, y que en la medida de lo posibles están mejorando las instalaciones.

A continuación, ha solicitado la palabra el urnietarra Mikel Elozegi, para preguntar cuáles son los criterios políticos para aprobar las Ordenanzas Fiscales del presente ejercicio. El alcalde le ha respondido que en general han aplicado la subida del IPC, es decir, el 3,3%, salvo en dos conceptos: uno, el 6% y pico aprobado a nivel de Buruntzaldea, y el otro la

*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Eguzkoa*

**2004KO AZAROAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 24 DE NOVIEMBRE DE 2004.**

uraren tasagatik galdetu du Mikel Elosegik, eta erantzun diote uraren kasuan KPIa igo dela eta estolderiaren kasuan %5, baina igoera hori Añarbe Mankomunitatetik datorrela. Gero, Iparlatek zeukan beherapena oraindik ere ba al duen galdetu du Mikel Elosegik; Iparlatek zeukan hobaria iaz kendu ziotela erantzun diote.

Bestetik, Kontu Epaitegiaren txostena dela eta, Mikel Elosegik esan du, prentsan agertu zenez, 2001. urteko Urnietako kontuak bide penaletik eramatea erabaki dutela, eta horretaz galdetu du. Idazkariak erantzun dio Fiskaltzako ofizio bat heldu dela udaletxera, eta hainbat dokumentazio eskatu dutela, eta prozedura hori aurretiazko eginbideetako tramitean dagoela.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko bostak eta hamarretan eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, alkatearen oniritziatz, hala ziurtatu dut, Urnietan 2004ko azaroaren 30ean.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría  
Bitarteko idazkaria,

subida del 10% de los residuos. Entonces, Mikel Elosegi ha preguntado por la tasa de agua; se le ha respondido que en ese caso ha subido el IPC, y que en caso del alcantarillado el 5%, pero que es una subida que viene dada desde la Mancomunidad del Añarbe. Mikel Elosegi ha preguntado por la rebaja de Iparlat; se le ha respondido que el beneficio del que gozaba Iparlat se lo quitaron el año pasado.

Por otra parte, Mikel Elosegi ha señalado en relación al informe del Tribunal de Cuentas que, según se publicó en prensa, se decidió llevar por la vía penal las cuentas del 2001 de Urnieta, y ha preguntado sobre ese asunto. La secretaria le ha respondido que desde la Fiscalía ha llegado un oficio al ayuntamiento solicitando diversa documentación, y que ese procedimiento está en trámite de diligencia previa.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco y diez se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del alcalde, en Urnieta a 30 de noviembre de 2004.

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga  
Alkate-lehendakaria,